



*Soinujolea naiz*  
Joxe Mendizabal  
Autoekoizpena, 2012.

## Soinujolea naiz

IZENBURU honekin argitaratu du Joxe Mendizabal tolosarrak bere bakarkako lana.

1987an grabatu zuen bere lehen diska Xaximiku taldearekin. Geroztik, ibilbide zabala egin du hainbat plaza taldetako kide bezala. Proiektu asko eta ezberdinetan murgiltzeko aukera izan duen musikari eta ekoizleak, soinujolea dela aldarrikatu nahi izan du kaleratu berri duen lan honekin.

Eskusoinu kromatikoaren doinua da nagusi berak sortutako kantuetan, eta dudarik gabe, tinbre hau gustuko duenak atsegin handiz entzungo ditu erritmo askotariko hamaika kanta.

Diskari izenburua eman dion *Soinujolea naiz* abestia, kumbia erritmoz lagunduta dator, eta zuri-bel-tzean sortutako ametsetatik, egun ogibidea duen lanari kantatzen dio.

*Kaiolatik* pasoboblean, bi emakumeren balentriak herrian sortutako istiluen kronika azaltzen digu.

Erritmo latinoak astindu ditu *Ez dut izenik* abestia, eta inongoa ez den emakume batek utzitako arrastoari egiten dio keinu.

Gaztetako pasarteak ekartzen ditu gogora *Santutegiko sakristian* fandangoan, haurtzaroan irratan entzundako piezak, gaztetan erromerietan egindako makina bat parranda, soinuarekiko sortutako zirrarak bultzatuta grabatutako lehen kasetara...

Ederra benetan alabari eskainitako *Matxalenen baltsa*, elkarrekin sortutako mundu zoragarrian, piraten printzesari izaren azpian amets egitera luzatzen dion gonbitea.

Bereak ez diren hiru kanta ere entzun ditzakegu, Isidro Larrañaga eskusoinujole tolosarraren *Alai* arin-arina, herrikoa den beste arin-arina eta Itoitz taldearen *Lo egin* sonatuaren bertsioa.

Melodi erakargarriak, letra biziak, interpretazio fina... Lan txukuna, azken finean.

Aipatzekoa da etxeko garajeen muntatutako estudioan grabatu eta ekoitzi duela diska, eta abestien egile eta jotzaile honek, melodiak, letrak, ahotsak, baseak, diskoaren grabaziorako pauso guztiak kudeatu dituela.

Erromeria.com helbidean ikus daiteke musikari eta ekoizlearen ibilbidea, eta gaur egun eskuarteetan dituen proiektuak.

Seguruenik ez duzu Top zerrendetan topatuko, baina egunen batean, ospakizun edo herri eta auzoko jairen batean, auspoa eraginez dantzan jarriko zaitu. Dudarik ez ezazula egin. Eskarmentu handiko plazagizona baita. Errekurtso ugari dituen musikaria. Eta, sasi guzrien gainetik, soinujolea. ■

Olatz Korta



ANDRA MARI  
restaurant

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia  
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com

